

“Jainkoaren antz eta irudiko gara”

14. saioa

Gizaki guztiok Kreatzailearen eskutik sortuak garela ikusarazi nahi da saio honen bidez. Jainkoak mundua sortu du gu bizi gaituzen; eta aparteko arrera jarri du gizon eta emakumearen sorkuntzan. Arraza eta herri guztietako gizon eta emakumeok garrantzi bera dugu, denok gara garrantzitsuak, bere irudiko egin gaituen eta guztion Aita den Jainkoaren maitasunaren sorkuntza garelako.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Jainkoak gizon eta emakumea bere antz eta irudiko sortu dituela eta, horregatik, duintasun bera dugula ulertu.
- Gizon eta emakumeok (gizadi osoak) Jainkoaren bizi-arnasa jaso dugula sentitu/antzeman

Haurrak:

- Bizitzeko denok garela baliotsuak, ezinbestekoak, azaldu
- Jainkoari Aita esaten ikasi

GARAPENA

Denok batera –haur eta heldu- ekingo diogu saioari, gaia kokatuz eta lana motibatuz. Kreatzioaren kontakizuna (Gn 1, 26-31; Gn 2, 4-25) ikusiko dugu bidez (haurrentzat). Ondoren, helduek eta haurrek dinamika desberdinak garatuko dituzte.

Ondorengo esteka honetan aurki daiteke bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=UUEVepQGJJ4>

HELDUAK

Helduentzat kontaketa ezaguna izan badaiteke ere, eragileak ikusiko du Kreatzioaren kontaketa zuzenean Bibliatik (Has 1, 26-31; Has 2, 4-25) irakurtzea komenigarria den ala ez.

Bi bide ditugu elkarrizketari ekiteko: ikusitako bideoa edo “*Jainkoaren seme eta alaba gara*” idazkia oinarritzat hartu. Idazkia, aurretik banatuta egon daiteke edo taldean bertan elkarrekin irakurri.

Hasieran, batera jar dezatela testua nola ulertzen duten... Nola uler daiteke denok duintasun bera duguna... (Nire haragiaren haragi da). Galdera hauek edo antzekoak ere lagungarri izan daitezke elkarrizketarako:

- Nola ikusten dugu elkar, biok ala biok ere Jainkoaren irudiko garelako kontuan hartuta?
- Nola lantzen dugu bikotean errespetua, lankidetzaz, barkamena eta laguntza eskuzabala?
- Beste arraza, herri edo kulturatakoak, zuon duintasun bera dutela pentsatzen duzue? Pertsona eta herri horienganako errespetu eta estimuan hezten dituzue zuon seme eta alabak?
- Zein ondorio du zuon bizitzarako Jainkoak denok bere antz eta irudiko sortu izana?

Ikuspuntu hau, beharbada, lagungarri izan daiteke gure jokaeraren bat (arrazista, sexista, klasista...) aldatzeko, datozenak, besteak..., guretar, familiako, nire haragiaren haragi... bihurtuz gero.

Errefuxiatuen, bizilekurik gabekoen... aldeko elkarte eta plataformetan parte hartzea eragin dezake, ditudan hartu-emanaz jabetzea, hau da, ia auzokide atzerritarrek adeitasunez agurtzen ditudan, diru-laguntzarik ematen dudana, pertsonen duintasuna, ... ahalbideratzeko.

Hurrekin elkartu eta saioa amaitu aurretik, ondorengo abestia entzungo dugu (letra bana daiteke): *¿De qué color es la piel de Dios?* <https://www.youtube.com/watch?v=oF22Av34Q-w>

NESKA-MUTIKOAK

Hona hemen mutiko eta neskatoekin egiteko jarduerak. Talde bakoitzean erabakiko da zein ariketa den egokiena, taldekideen kopurua eta adina kontuan hartuta. Ariketetako batzuk etxean, familian egin daitezke.

Zirkuluan jarri eta arnasketa batzuk egingo ditugu, lasaitasunezko giroa sortzeko. Begiak itxi ditzatela eta musika jarrita dagoela, imajina dezatela gustura egoteko leku polit bat: landa, hondartza, mendia... Bizpahiru minuturen buruan, begiak ireki eta non egon garen azalduko dugu.

Kreazioaren kontaketa

Gure Aita Jainkoak oparitu dizkigu irudikatu ditugun leku eder guzti horiek... Lehen ikusi dugun bideoa gogora dezakegu edo berriz ikusi hurrekin batera. Oraingoan, gelditu eta bideoak erakusten diguna komentatu egingo dugu eta, horrela, apurka-apurka, abestiaren leloa ikasi egingo dugu. Azken esaldia nabarmenduko dugu: "... *Bera da Kreazioaren Aita*".

“Puzzle perfektua”

Gure gorputza hainbat “pieza” edo atalez osaturik dela ikusarazi behar diegu haurrei eta guzti horiek batera egiten dutela pertsona. Gure gorputzaren atal bakoitzari bere egitekoa dagokio eta denak ditugu ezinbestekoak. Ebakigarriez baliatuz, gizonaren eta emakumearen irudiak egin ditzakete (ikusai saiorako lagungarrien karpeta). Gure “pieza bakoitza” erabiliz zer egin dezakegun esango dugu eta eskerrak emango dizkiogu Jainkoari. Esate baterako:

Besoak mugitzen ditugu agurtzeko, besarkatzeko... Eskerrik asko, Aita Jainkoa, elkar agurtu eta besarkatu dezakegulako.

Hankak mugitu eta ibili egiten gara... Eskerrik asko, Aita Jainkoa, ibiltzeko gauza garelako...

Dinamika bera egin dezakegu etxean, baina ispiluaren aurrean, gure gorputzaren atalez jabetzeko.

Ostadarra

Euria ari ela eguzkia ateratzen denean, ostadarra agertzen dela azalduko diegu haurrei. Kolore guztiak behar ditugu ostadarra egiteko. Kartulinak edo koloretako margoak erabiliz, ostadarra egin edo margotuko dugu. Politena, dibertigarriena, gauzak hainbat koloretakoak izatea da... Dena berdea, edo gorria, edo zuria... balitz triste eta aspergarriagoa litzateke. Ostadarra egiteko, kolore guztiak behar ditugu; denak dira garrantzitsuak.

Bakarrak gara

Fanoren kartela (saiorako materialak karpeta) ipiniko dugu: *“Jainkoarentzat, bakarrak gara”*.

Dominako zenbakiari erreparatzeko esango diegu. 1 zenbakia agertzen da beti. Gure Aitarentzat, denok gara lehenak.

Domina egingo dugu elkarri ipintzeko, denok baikara baliotsuak. Elkarri domina jartzean, haxe esango dugu: *Eskerrik asko, Aita Jainkoa, hainbeste maite gaituzulako.*

Haurrak txikiegiak badira, katekista/begiraleak lagunduko die; dinamika hau gurasoekin ere egin daiteke eta, kasu honetan, beraiek lagun diezaiekete haurrei.

Dominan, elkarri lotutako bi esku marraztuko ditugu: gure eskua eta aldameneko lagunaren eskua izango dira.

AZKEN UNEA ELKARREKIN

Bideoa ikus dezakegu berriro eta abestiaren leloa kantatu.

*Dios habló y vio que todo era bueno,
pues con su palabra el mundo creó.
Dios habló y vio que todo era bueno,
Él es el Padre de la Creación*

Juanjo Elezkanoren “Denon egile, Jainko Aita” abestia ikasi eta elkarrekin abestuko dugu (audioa, saiorako materialak deitutako karpetan dago):

*Ume eta gazte,
mutil eta neska,
mundu osoko gizon eta andra,
ahots batez kantari,
esker ona guztion Aitari,
den-denon Egile,
Jaun onari (bis)*

Beste abesti hau ere entzun eta kanta dezakegu: *¿De qué color es la piel de Dios?*
<https://www.youtube.com/watch?v=oF22Av34Q-w>